

# TOPA

Supermerkatua

Peio Cundín, Aitana López, Lander  
Larrañaga eta Leire Bello



# Aurkibidea

Metodo Canvas.....	3
<b>1. Balioa</b> .....	<b>3</b>
<u>Ideia</u> ren jatorria.....	3
<u>Xedeak</u> .....	4
<u>Baloreak</u> .....	5
<b>2. Segmentazioa</b> .....	
<b>3. Funtsezko elkarteak</b> .....	
<u>Aliantzak</u> elikagaien hornitzaileekin .....	
<u>Aliantzak</u> inguruko udalarekin.....	
<u>Aliantzak</u> teknologia-hornitzaileekin .....	
<u>Interneteko zerbitzuaren hornitzaileak</u> .....	
<b>4. Irabazi iturriak</b> .....	
<u>Enpresa berritzailea</u> izateagatik <b>diru laguntzak</b> .....	
<u>Kobroak</u> .....	
<u>Prezioak</u> .....	
<b>5. Kanalak</b> .....	
<u>Pertzepzioa</u> .....	
<u>Salmenta eta entrega</u> .....	
<u>Salmenta ondorengoa</u> .....	
<b>6. Bezeroekiko harremanak</b> .....	
<u>Bezero edo kontsumitzaile berriak</u> lortzeko .....	
<u>Enpresak</u> dauzkan bezeroei eusteko .....	
<b>7. Funtsezko baliabideak</b> .....	
<b>8. Funtsezko jarduerak</b> .....	
<b>9. Kostuak</b> .....	

# 1. Balioa

## Ideia ren jatorria

---

**Espainia hustua** problematika **erreala** eta **kezkagarria** da. Espainia Hustua esaten diegu etengabe biztanleria galdu duten lurralde horiei, politika ekonomiko eta estrukturalen eraginpean dauden herriak, lurraldeen arteko desoreka erraztu dutenak eta lurralde horien gainbehera eragin dutenak, pertsonak, zerbitzuak, azpiegiturak eta lan-aukerak masiboki galduz.



Horri erantzuteko, **supermerkatu** bat garatu dugu **hirietatik urrun** dauden herri horietan jartzeko, biztanleei bizitza errazteko. Lurralde hauetan zerbitzu gutxi daude, zailtasunak dituzte medikura joateko, administrazioarekin tramiteak egiteko, erosketak egiteko... Azken arazo horri konponbidea eman diezaiokeen negozio ideia garatzea zen gure nahia.

Horrez gain, **TOPA** supermerkatuan **ez dira saltzailerik** egongo, guztiak teknologia erraz baten bidez funtzionatuko du, hainbat **salmenta-makinez** osatutako sistema bati esker. Noski, teknologia hau prest egongo da lapurretak ekiditeko eta agureentzat ulergarria izateko.



# Xedeak



✚ Estatuko herri **bazteruetan** bizi den **jendea hornitzea** da. Bide honetan, ahalbidetuko dugu hirietan bizi ez diren pertsonak eroso eta gertu izatea supermerkatu bat, beharrezkoa ez izateko nahitaez hirira joatea erostera.



✚ Produktu eta elikagai arruntak eta ohikoak saltzeaz gain, **tokian tokiko jakiak** ere sustatuko eta salduko ditugu. Bertako biztanleekin harremanak sortuz eta zainduz. Izan ere, PALL taldeko kideok uste dugu oso garrantzitsua dela herrietako **abeltzaintza eta nekazaritza sustatzea**.



✚ **Prezioak merkeak** eta **eskuragarriak** izatea. Gainera, supermerkatuan saltzailerik egongo ez direnez, kostuetan aurreztuko dugu eta prezioak baxuak izatea lortuko dugu.

# Baloreak



## KALITATEA

Kalitate handiko produktuak prezio lehiakorretan eskaintzea, bezeroen ongizatea asetzeko.

## ZERBITZUA

Zerbitzu arretatsua eta bikaina eskaintzea, bezeroek beren dendan duten erosketa-esperientzia hobetzeko.



## BERRIKUNTZA

Bezeroen bizitza hobetuko duten produktu eta zerbitzu berritzaileak eskaintzen saiatzea.

## KONPROMISOA

Bezeroarekin konpromisoa hartzea kalitate oneko produktuak eskaintzeko, bidezko prezioan eta aparteko zerbitzuarekin.



## INGURUMEN-ERANTZUKIZUNA

Ingurumena zaintzea eta hondakin kaltegarriak ez sortzea, baita bezeroengan ingurumenarekiko eta komunitatearekiko erantzukizun-sentimendua sustatzea.

## ELKARREKIKOTASUNA

Komunitatearen garapenean laguntzea, aukerak eskainiz.

